

## LOMLOE, LEGE PROGRE, ESPAINIAR ETA ZENTRALISTA

Galdera bada LOMCE edo LOMLOE, ez bat ez bestea. Argi dago Espainiar eskumaren legea baino hobea dela PSOEek eta Podemosek osatzen duten gobernuaren, baina ez da Euskal Herriak behar duen legea inondik ere. Ikuspegi pedagogiko-sozialetik mugatuak diren aurrera-pausuak ikus daitezke hainbat gaitan; ikuspegi nazionaletik, aldiz, Madrilek jarraituko du erabakitzen Estatu osoko eta Hego Euskal Herriko hezkuntzari dagozkion gai nagusien inguruan. Zentzu honetan LABek argi eta garbi adierazi nahi du LOMLOEren aurka dagoela, ikuspegi pedagogiko eta sozialetik nahikoa ez delako, euskal langileen eskubideak zapaltzen jarraitzen duelako eta gure hezkuntza-sistema erabakitzeko eskubidea ukatzen duelako LOMCEk bezala. Euskal Herriak hezkuntza sistema burujabea, publikoa- eta komunitarioa behar du, hezkuntzaren zentralizazioari, pribatizazioari eta merkantilizazioari herri bezala aurre egiteko.

Esan bezala badaude neurri pedagogiko-sozial batzuk, Wert ministro ultra-espainiar eta eskuindarraren legea hobetzen dutenak, baina motz gelditzen direla iruditzen zaigu:

- Hezkuntzarako inbertsio publikoa BPGren %5era handitu beharraz hitz egin arren, ez du inolako konpromisorik jasotzen, eta hurrun geratzen da Europako herrialde aurreratuek inbertitzen duten %6tik.
- Hezkuntzaren modernizazioaz eta berrikuntza pedagogikoaz ari dira, baina multinazional eta eliza katolikoaren testuliburu espainiarretan oinarritutako hezkuntza mantentzen dute, ikasgaika banatutako eta azterketa eta kalifikazioan oinarritutako ebaluazio hezkuntza-eredu zaharkitua atzean utzi ezinda.
- Ekitatea edo segregazioari dagokionean ere aldaketa handirik ez. Politika ausart eta indartsuak behar direnean, neurri izarra kontzertazio orokorrari mugak jartzeko pausu bat edo beste ematea da, eta praktikan proiektu elitistak diru publikoz finantzatzen jarraituko dute. Sexuaren arabera segregatzen duten ikastetxeak ez dira kontzertatuko eta hau berri ona da.
- Hezkidetzeta edo Pedagogia Feministaz neurriren bat edo beste proposatzen dute, baina, ez dago Nafarroako Skolae bezalako proiektuak hedatzeko neurririk.
- Nahiz eta 0-3 zikloaren aitortzarako urratseren bat proposatu, ez da sistema publikoan txertatzeko neurririk hartzen, honek 0-3 zikloaren pribatizazioari bide ematen dio, kontzertazio berriei atek itxi gabe. LABek eskatzen du 0-3 zikloa sistema publikoan txertatzea; honek erraztuko luke zikloa eta bertako langileen aitortza zein lan baldintzen hobetzea, baita izaera hezitzailea, doakotasuna eta unibertsaltasuna bermatzea ere.
- Erljioa: eskaintza derrigorrezkoa izatetik hautazkoa izatera pasako da. LABek aldarrikatzen duen hezkuntza laikorik beraz ez da izango.

Arlo nazionalean, berriz, betiko lepotik burua, espainiar Estatuak erabakiko du Hego Euskal Herrian zer eta nola ikasi-irakatsi edo nola ebaluatu behar den, zenbat funtzionario publiko kontratatu ahal izango ditugun edo jantokietako beken inguruan.

- Hezkuntza Sistemaren zutabeak Madrilek erabakiko ditu. Espainiar estatuak erabakiko du antolaketa: zeintzuk diren irakasgaiak, hezkuntza etapak, zein ikastetxe den publikoa eta zein kontzertatu edo pribatua, unibertsitaterako sarrera, etab. LABek hezkuntza sistema burujabea

aldarrikatzen du Euskal Herriarentzat, publikoa eta komunitarioa, behetik gora hezkuntza komunitatearekin elkarlanean eraikia.

- Curriculumaren ardatzak eta edukien %50 Madrilek erabakiko ditu, Gasteiz eta Iruñeako Gobernuek erabakiko dute %40, eta ikastetxeek %10. Gainera, ebaluazioaren kompetentzia estatuak beretzat hartuta, curriculuma goitik behera baldintzateko aukera izango du. LABek Euskal Curriculuma aldarrikatzen du, gure herriko ikastetxeetan zer ikasi bertako hezkuntza komunitateak erabaki behar du.
- Hizkuntza koofizialak dauden autonomietan gaztelania ez omen da hizkuntza nagusia izango. LABek erabat gezurtatu nahi du esaldi hori: Nafarroa erdi eta hegoaldean ez da gaztelania hizkuntza nagusia izango? A, B eta G ereduak gaindituko dira? Lege honek ez du bermatzen euskarazko murgiltze eredia ezartzea, ezta EAEn ere.
- Ebaluazioa: %100ean estatuaren kompetentzia izango da. Hezkuntza sistema kontrolatzeko/zentralizatzeko neurria da. Errebalidak kendu eta ebaluazio diagnostikoak EAEkoak bezalakoak izango dira, ez omen dute egingo ikastetxeen arteko rankingik; bai, ordea, ikasleen artean, azterketa eta selektibitatearen bidez.
- Egoera ekonomiko zailean dauden ikasleen beken inguruko erabakiak Madrilek eta horko epaitegiek hartzen jarraituko dute, EAEko jantokietako bekekin gertatu den legez. Ikasleen hezkuntza eta elikadura ona bermatzeko erabakiak hemen hartu behar ditugu.

Madrilek hezkuntzarako lege berria zehaztu duen honetan, milaka langilek egiten ditugun eskariei ere ez die biderik eman. Nafarroa eta EAEko gobernuek, bakoitzak bere neurrian, urteetan negoziatorako ateak itxi dizkigute eskuduntzarik ez zutelakoan, eta oraingo legean ere ez dugu aurrerapenik ikusten. Azken finean, hezkuntzako langileon negoziazio kolektiborako aukerek bahituta jarraituko dute estatuan.

- Behin betiko lanpostuak lortzeko oposizio prozesuetan, Madrilek inposatzen jarraituko du zeintzuk edukiren arabera eta nola baloratuko den zein hautagai den egokiena gure hezkuntza sisteman egonkortzeko. Birjartze tasetatik haratago, kontsolidazio prozesuak arautu behar dira, eta oposizio eredia ez berritzeak interinitate altua ez zuzentzea ere eragingo du.
- Ez da nahikoa ebaluazio diagnostikoak egitea detektatzen diren hutsuneak gainditzeko baliabide eta langile berriak hornitu gabe. Aukera paregabea galdu da haur eta nerabeen beharretara egokituriko metodologia berritzaileak bultzatuko dituzten langileak kontratatuzko.
- LOMLOE-k ere ez du aurreikusten sare publikoaren langileak gazteberritzeko neurririk. Errelebo kontratuentzako bideak moztuta jarraituko du sare publikoan, eta erretiro aurreratua bultzatzeko pizgarriek izoztuta, milaka langileren eskaerei entzungor eginez.
- Ez da nahikoa hezkidetzaz, digitalizazioaz, hizkuntza gutxituen bultzadaz... hitz egitea. Gai hauetan aurrera pausu errealak eman ahal izateko langile zerrendetan gehikuntzak eragingo dituzten apustu politikoak beharrezkoak dira.
- Hezkuntza sailtako langileen izaerari ez zaio aipamenik egiten. Hartara, Espainiar estatuko funtzionario izaten jarraituko dute irakasleek.



- Lanbide heziketan hausnarketa sakonago baten beharra dago. Arautua izan dadin bai irakasleen nolakotasuna eta jarduteko eskatzen zaizkien baldintzak eta baita praktiketako ikasleek lan zentroetan nolako lana burutu behar duten.
- Ikasleen norbanako jarraipen eta proposamen pedagogikoak garatzea ezinbestekoa izanik; hau bateraezina da egun indarrean dauden ratioekin. Gainera, lan baldintzetan ere eragin zuzena dute ratioek. Beraz, salatzekoa da ratioen jaitsiera arautuko duen neurririk hartu ez izana.

Gauzak horrela, LABek ez du LOMLOE babesten eta aldarrikatzen dugu Euskal Herriak hezkuntza lege propioa eta burujabea behar duela Hezkuntza Sistema Publiko Komunitarioa eraikitzeko.

Euskal Herrian, 2020ko azaroaren 19an